



**EBAZPENA, 2025EKO AZAROAREN 12KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN
FUNTZIONARIOENTZAKO EUSKARA-IKASTAROETARAKO DEIALDIA EGITEN DUENA.
2025/26 IKASTURTEA OTSAILA-EKAINA
(DEIALDI OSAGARRIA)**

Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Justizia Administrazioako Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten Justizia Administrazioako funtzionarioen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzeko eta bultzatzeko xedez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako Hizkuntza Normalizazioari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak deitu ditu 2025/26 ikasturteko bigarren lauhilekorako.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

Artikulu bakarra. – Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioei zuzendutako euskara-ikastaroen Deialdi Osagarria, 2025/26 ikasturtearen bigarren lauhilekorako, ebazpen honen I. eranskinean jasotako oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.

María Dolores Movilla Rivas
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

I. ERANSKINA

OINARRIAK

Lehena. – Xedea

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzea eta bultzatzea.

Bigarrena. – 2025/26 ikasturterako deialdiak

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak bi deialdi argitaratuko ditu 2025/26 ikasturterako. Deialdi Orokorra 2025eko maiatzaren 12an argiratu zen. Deialdi Orokorrerako deia egin zuen ebazpenak eta Deialdi Osagarriaren ebazpenak (oraingo ebazpen honek) arautzen dute 2025/26 ikasturteko deialdi osagarria.

Ikastaroen eskaintza lan-ordutegira zein lanaz kanpoko ordutegira hedatzen da, baina mugatua da Deialdi Osagarria. Ez ditu Autoikaskuntza eta C2 mailako ikastaroak eskaintzen 2025/26 ikasturtearen bigarren lauhilekorako.

Deialdi Osagarria Justizia Administrazioko Zuzendaritzaren aurrekontu-erabilgarritasunaren mende egongo da.

Hirugarrena. – Deialdi honen hartzaileak

- Deialdi honetan honako langile hauek parte hartu ahal izango dute: Prozesu eta Administrazio Kudeaketakoek, Prozesu eta Administrazio Izapidetzakoek, Laguntza Judizialekoek eta Auzitegi Medikuntzako kidegoetakoek, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko karrerako funtzionarioak edo bitarteko funtzionarioak badira.

Bitarteko funtzionarioek deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, baldin eta izendapenaren iraupena eskatutako euskara-ikastaroaren iraupenaren berdina edo luzeagoa bada.

Era berean, lanaldiaren **laurdenetik gorako murrizketa** duten funtzionarioek lanalditik kanpoko ordutegian bakarrik eskatu ahal izango dituzte euskara-ikastaroak.

- Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko eta Laguntza Judizialeko Kidegoko langileei C1 maila lortu arteko baimena emango zaie, lanorduetan zein lanorduetatik kanpo. Salbuespen izango dira euskaltegian C1 maila lortu baina egiaztatu ez dutenak.

Azken horiek, gehienez ere, beste bi ikasturte izango dituzte lanorduetatik kanpo euskara ikasten jarraitzeko eta dagokien maila egiaztatzeko. Hortik aurrera ez zaie beste lizentziarik emango.

Era berean, Auzitegiko Medikuen eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketaren kidegoetako langileei C2 maila lortu arteko baimena emango zaie, lanorduetan zein lanorduetatik kanpo. Salbuespen izango dira C2 maila (4. HE) lortu baina egiaztatu ez dutenak. Azken horiek, gehienez ere, beste bi ikasturte izango dituzte lanorduetatik kanpo euskara ikasten jarraitzeko eta dagokien maila egiaztatzeko. Hortik aurrera ez zaie beste lizentziarik emango (C2rako eskaera Deialdi Orokorrean soilik egin daiteke). (ikusi *Bigarrena. – 2025-2026 ikasturterako deialdiak*)

Laugarrena. – Eskaera aurkezteko baldintzak

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen kidegoetako langileak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Moduluz aldatu nahi dutenek. Esate baterako, 5 orduko liberaziotik 2 orduko ikastaroetara pasatzeko edo alderantziz.
- Deialdi orokorrerako eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren lanpostuaz jabetu diren langileak (2025eko maiatzaren 21etik aurrera).
- Deialdi Orokorrean izena emateko epean (2025eko maiatzak 13 – 21) edo/eta urriaren hasieran (ikasturte hasiera euskaltegietan) medikuaren baja izan dutenak (agiria aurkeztu beharko da).
- Behin betiko zerrendan baztertuak izan zirenak 1 kodearekin (*Izendapenaren iraupena ez da nahikoa*).
- Urrian (ikasturte hasieran) behar zuten mailako talderik aurkitu ez zutenak.
- Deialdi Orokorrean lanorduetan joateko plantillaren % 30etik gorako eskaera egon zelako baztertuak izan zirenak, baldin eta une honetan organo judizial horren egoera aldatu bada.

Horrez gain, eskaera egiten duten langileek zerbitzu aktiboan egon beharko dute eskabidea egiteko unean zein ikastaroa hasteko unean.

Bosgarrena. – Eskaerak

Eskaera bulegoko edo organoko arduradun funtzionalari jakinarazi behar zaio, edo haren oniritzia izan behar du deialdi honetan hala xedatzen denean.

Funtzionarioek modulu bat baino gehiago eska ditzakete, eta izena eman duten moduluetan bakarrik aritzeko aukera izango dute. 2 eta 5 orduko ikastaroak eskatzen badira, 5 ordukoak izango du lehentasuna, baina onartzen ez bazaio, 2 orduko ikastaroaren aukera aztertuko da.

Eskaerak aurkezteko epea

2025eko azaroaren 13tik 21era (egun biak barne) bitartean aurkeztu beharko dira eskaerak.

Izen-ematea

Tramitagune bidez egingo da, lotura honetan sartuta:

<https://www.euskadi.eus/ekitaldia/2026/euskara-ikastaroak-justizia/web01-a2justic/eu/>

Argibideetarako telefono-zenbakia: 945019159

Seigarrena. – Eskainitako ikastaroak

Deialdi osagarriko ikastaro-eskaintza ebazpen honen laugarren oinarrian jasotako baldintza eta betekizunetara mugatua dago:

- 2 orduko ikastaroa egiten hastea, laugarren oinarrian zehazten diren kasuetan.
- 5 orduko ikastaroa egiten hastea, laugarren oinarrian zehazten diren kasuetan.
- 2 orduko ikastarotik 5 ordukora aldatzea.
- 5 orduko ikastarotik 2 ordukora aldatzea.

Hortaz, deialdi orokorretik abiatuta, honako hauek dira Justizia Administrazioako Zuzendaritzak eskaintzen dituen aukerak:

6.1. Bi orduko ikastaroak

2025eko maiatzaren 12ko Deialdi Orokorrean zehazten dena.

6.2. Ikastaro trinkoak

2025eko maiatzaren 12ko Deialdi Orokorrean zehazten dena.

Honako hauek **ezin izango dute 5 orduko lauhileko liberazioa** izan:

- Kidegoari dagokion (derrigortasun-data izan ala ez) maila/hizkuntza-eskakizuna lortu (egiaztatua ala ez) duten langileek.
 - Prozesu eta Administrazio Izapidetzakoek eta Laguntza Judizialekoek: B2
 - Auzitegiko Medikuek eta Prozesu eta Administrazio Kudeaketakoek: C1
- 2025/26 ikasturtearen lehen lauhilekoan 5 orduko liberazioa izan dutenek.

5 orduko ikastarora aldatzeko, honako **betekizun** hauek bete beharko dira:

- 2025/26 ikasturteko lehenengo lauhilekoan euskara-ikastaroetan aritu izana, eta aprobetxamendu ona eduki izana (deialdi orokorreko hamaseigarren oinarrian zehaztua).
- Azken 6 hilabeteetan gutxienez A2 maila gainditu izana (egiaztatua ala ez).

Eskaera berriak honako **kasu hauetan** bakarrik onartuko dira:

Nahiz eta 2024/25 ikasturtean euskara-ikastaroetan aritu eta aprobetxamendu ona eduki (deialdi orokorreko hamaseigarren oinarrian zehaztua), Deialdi Orokorrean izena eman ez zutenena, **ez baitzuten betetzen deialdi horren laugarren oinarriko baldintzaren bat.**

Zazpigarrena. – Euskara ikasteko lizentzia izango duten langileen konpromisoak

Deialdi honetako euskara-ikastaroetan parte hartzen duten funtzionarioek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Ikastaroetan asistentzia eta aprobetxamendu egokia izatea.
- Mailak gainditzeko deitutako aldizkako ebaluazioak egitea.
- Hizkuntza-eskakizunak edo baliokideak egiaztatzeko azterketak egitea, dagokien mailara iristen direnean.
- Dagokion organo judizialean, euskararen erabilera sustatzeko programetan aktiboki parte hartzea.

Zortzigarrena. – Lehentasun irizpideak

174/2010 Dekretuari jarraituz, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak aldiro-aldiro deitzen dituen euskara-ikastarotara **nortzuk joango diren erabakitzeko lehentasunak** honako hauek izango dira:

1. Bereiztutako dotazioa duten eta oraindik beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileak.
2. Lehentasunezko zatitako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak, horiek identifikatzen direnean.
3. Beren kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizunetik hurbilen den euskara-maila duten langileak.
4. Euskararen erabilera sustatzeko programetan parte hartzen duten langileak.
5. Euskara-maila bera duten eskatzaileen artean, lehentasuna izango dute destinoko zentroan antzintasun handiena dutenak.
6. Destinoko zentroan euskara-maila eta antzintasun bera duten langileen artean, aurreko ekitaldietan eskaintako ikastaroetan aprobetxamendu onena izan dutenak izango dute lehentasuna.
7. Aipatutako irizpideak nahiko ez badira, langile gazteenak izango du lehentasuna.

Bederatzigarrena. – Ikastaroetara joateko baimenak

Deialdi orokorrean aplikatu zen bezala, ikastaroetara lanorduetan joan ahal izango da, gehienez ere **plantillaren % 30** aldi berean. Urrian ikastaroetara sartu ziren langileak eta deialdi honen bidez sartuko direnak kontuan hartuta kalkulatu da.

5 orduko lizentziei dagokienez, Deialdi Orokorrean bezala jokatu da. Arduradun funtzionalak zerbitzuaren beharrengatik euskara ikasteko ez liberatzea aholkatzen duen txosten bat aurkeztu ahal izango du, eskabidearen kopia jaso eta behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazio-epea amaitu bitartean. Kasu horretan, zuzendaritza honek emandako behin-behineko baimena indargabetu dezake.

Hamargarrena. – Mailaketa-probak

Eskaerak aztertu ondoren, honako ikasle hauek egin beharko dute mailaketa-proba:

Probintziako hiriburuetan 8:00-10:00 orduetara eskatu dutenak, baldin eta deialdi honen aurreko azken 6 hilabeteetan euskara-eskolek joan ez badira euskarazko ezagutza maila zehazteko.

Mailaketa-proba hauetara deitutako langileak ezinbestean aurkeztu beharko dira. Salbuespen izango dira euskara inoiz ikasi ez eta AOA0 mailan hasteko daudenak.

Hamaikagarrena. – Taldeen antolaketa

HABE saiatuko da honako aurrez aurreko talde hauek antolatzen Justizia Administrazioko langileekin, eta ordutegi honetan izena eman duten ikasleek talde horietara joan beharko dute:

- Goizeko **lanorduetako 2 orduko ikastaroak** (8:00-10:00) Bilbon, Donostian edo Gasteizen.
- Ikastaro **trinkoak** (5h) euskaltegian.

Administrazioko talderik osatzen ez bada, **matrikula-orria** bidaliko zaie (ikusi *Hamabigarrena. – Matrikula-orria*).

Hamabigarrena. – Matrikula-orria

Aurreko puntuan aipatutako **talde antolatuetan sartzen ez diren ikasleek** bere beharretara hobekien egokitzen den **euskaltegia bilatu beharko** dute, deialdi orokorrean jasotakoaren arabera.

Kasu horretan, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak **euskaltegian aurkeztu beharko duten matrikula-orria** bidaliko die.

Hamahirugarrena. – Erreklamazioak

Deialdi honetan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratzen denean, baztertuak izan direnek 10 egun naturaleko epea izango dute Justizia Administrazioko Zuzendaritzan erreklamazio-idazki bat aurkezteko, argitaratze-dataren hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioak helbide honetara bidali beharko dituzte: euskaradeialdiak@euskadi.eus.

Halaber, **lanorduetako ikastaroetatik baztertuak izan direnek** erreklamazioak egiteko daukaten **epe bera izango dute lanorduetatik kanpoko euskara ikastaroa eskatzeko**.

Hamalagarrena. – Egutegia

Euskara ikastaroen **egutegi orokorra** honakoa da:

2 ordukoak	5 ordukoak (2. lauhilekoan)
2026ko otsailak 16 – 2026ko ekainak 19	2026ko otsailak 16 – 2026ko ekainak 26

5 orduko ikastaroetan, euskaltegiak erabakitako egutegia jarraitu beharko dute nahitaez. Ikasleak lan egiten duen organoan jaieguna bada, euskaltegira joan beharko du. Aldiz, euskaltegian jai bada edo beste arrazoiren batengatik eskolarik ez badago, ikasleak lantokira joan beharko du, egun bakar baterako bada ere, salbu eta oporrak edo baimen eguna eskatu badu egun horretarako.

Baldin eta, **2 orduko modulua** edo antzekoa egitea onartuta duten langileen kasuan, euskaltegiko eskola-orduekin, osorik edo zati batean, bat datorren ezinbesteko denborako lizentzia edo baimena sorrarazten duen gertakariren bat gertatzen bada, langileak egun horretan bere lanpostura joan beharko du, eta lizentziak edo baimenak estaltzen ez duen denbora egin beharko du, esleituta duen lanaldi arruntera iritsi arte.

Hamabosgarrena. – Bestelakoak

2025/2026 Deialdi Orokorrean jasotakoa aplikatuko da honako gai hauetan:

- Ikastaroetara ez joatearen justifikazioa
- Ikastaroen aprobetxamendua
- Ikastaroan berandu hastea
- Ikastaroa behin betiko uztea
- Lantokia aldatzea
- Orduen konpentsazioa
- Ikastaroen finantzaketa

II ERANSKINA

Lanorduz kanpokoa eskatzeko

III ERANSKINA

Ikastaroa uztea